

EUROPAR BATASUNAREN OINARRIZKO ESKUBIDEEN GUTUNA

(2007/C 303/01)

Europako Parlamentuak, Kontseiluak eta Batzordeak ohore handiz aldarrikatzen dute ondorengo testua dela Europar Batasunaren Oinarrizko Eskubideen Gutuna:

EUROPAR BATASUNAREN OINARRIZKO ESKUBIDEEN GUTUNA

Sarrera

Europako herriek, beren artean gero eta batasun estuagoa sortuz, etorkizun baketsua nahi dute izan elkarrekin, balio erkideetan oinarrituta.

Batasunak, bere ondare espiritual eta moralaren jakitun, balio banaezin eta unibertsaletan du sustraia, hots, giza duintasunean, askatasunean, berdintasunean eta elkartasunean; eta demokraziaren eta zuzenbideko estatuaren printzipioak ditu oinarri. Batasuneko herritartasuna eratuta, eta askatasun-, segurtasun- eta justizia- esparrua sortuta, Batasunak gizakia du bere jardunaren ardatz.

Batasunak balio erkide horiek zaintzen eta sustatzen laguntzen du, betiere, Europako herrien kultura eta tradizio anitzak errespetatuta; halaxe errespetatzen ditu, halaber, estatu kideetako bakoitzak berez duen nortasuna baita estatuko, herrialdeetako eta tokian tokiko botere publikoen antolaketa ere. Batasuna garapen orekatua eta iraunkorra sustatzen saiatzen da, eta pertsonen, zerbitzuen, salgaien eta kapitalen zirkulazio askea bermatzen du, baita kokatzeko askatasuna ere.

Horretarako, beharrezkoa da oinarrizko eskubideen babesa indartzea, gizartearen bilakaera, garapen soziala eta zientzia-teknologietako aurrerapenak aintzakotzat hartuta, eta Gutun batean jasota uztea.

Gutun honek, Batasunaren eskumenak eta xedeak eta subsidiariorotasun- printzipioa errespetatuz, indartu egin nahi ditu, batez ere, estatu kideen konstituzio-tradizioetatik eta nazioarteko betebeharrak erkideetatik sortzen diren eskubideak, Giza Eskubideak eta Oinarrizko Askatasunak Babesteko Europako Hitzarmenetik sortutako eskubideak, Batasunak eta Europako Kontseiluak onartutako Gutun Sozialetatik sortutakoak, eta Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren eta Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren jurisprudentzietatik datozen eskubideak. Ildo horretatik, Batasuneko eta estatu kideetako jurisdikzio-organismoek interpretatuko dute Gutuna, eta zeregin horretan, Gutuna egin zuen Konbentzioko Praesidiuma buru dela landutako azalpenei eta Europako Konbentzioaren Praesidiumaren agintaritzapean eguneratutakoei behar bezala begiratuko diete.

Eskubide horien gozamenak erantzukizunak eta eginbeharrak ezartzen ditu, bai pertsonekin, bai giza komunitatearekin, bai eta ondorengo belaunaldiekin ere.

Horrenbestez, Batasunak ondoren adieraziko diren eskubideak, askatasunak eta printzipioak aitortzen ditu.

I. TITULUA

DUINTASUNA

1. Artikulua

Giza duintasuna

Giza duintasuna urraezina da. Giza duintasuna errespetatu eta babestu egingo da.

2. artikulua

1. Pertsona orok du bizitzeko eskubidea.
2. Inor ezin izango da heriotza-zigorrera kondenatu, ez eta hil ere.

3. artikulua

Pertsonaren osotasunerako eskubidea

1. Pertsona orok du osotasun fisikoa eta psikikoa izateko eskubidea.
2. Medikuntzan eta biologian bereziki errespetatuko dira honako hauek:
 - a) pertsona bakoitzak ondo informatuta dagoela eta askatasunaz emandako onespina errespetatuko da, betiere, legeak ezarritako moduen arabera;
 - b) praktika eugenetikoen gaineko debekua errespetatuko da, batez ere, pertsonen hautespena helburu dutenak;
 - c) giza soina nahiz soinaren zatiak, halakotzat hartuta, irabazpide bihurtzeko debekua errespetatuko da;
 - d) d) gizakiak klonazioz erreproduzitzeko debekua errespetatuko da.

4. artikulua

Debekatu egiten dira tortura eta zigor edo tratu anker edo laidogarriak Inori ere ezin izango zaio torturarik eta zigorrik edo tratu anker edo laidogarririk ezarri.

5. artikulua

Debekatu egiten dira esklabotasuna eta bortxazko lana

1. Inor ere ezin izango da besteen esklabo edo uztarpeko jarri.
2. Inor ere ezin izango da behartu bortxazko edo nahitaezko lanak egitera.
3. Debekatu egiten da gizakiak salerostea.

II. TITULUA

ASKATASUNAK

6. Artikulua

Askatasun eta segurtasunerako eskubidea

Pertsona orok du askatasun eta segurtasunerako eskubidea.

7. Artikulua

Bizitza pribatuaren eta familiako bizitzaren errespetua

Pertsona orok du bere bizitza pribatua, bere familia-bizitza, bere etxebizitza eta bere komunikazioak errespetatuak izateko eskubidea.

8. artikulua

Pertsona bakoitzaren datuen babesa

1. Pertsona orok du berari dagozkion datu pertsonalak babestuta izateko eskubidea.
2. Datu horiek leialtasunez landuko dira, helburu zehatzetarako eta dagokion pertsonaren onespina oinarri dela edo legeak jasotako bidezko beste oinarri baten indarrez. Pertsona orok du berari dagokionez jasota dauden datuetara iritsi eta horiek zuzentzeko eskubidea.
3. Arau horien errespetua agintaritza independente baten kontrolpean egongo da.

9. artikulua

Ezkontzeko eskubidea eta familia eratzeko eskubidea.

Bermatu egiten dira ezkontzeko eskubidea eta familia eratzeko eskubidea, estatu bakoitzean bata eta bestea nola baliatu arautzen duten legeen arabera.

10. artikulua

Pentsamendu-askatasuna, kontzientzia-askatasuna eta erlijio- askatasuna

1. Pertsona orok du pentsamendu- askatasuna, kontzientzia-askatasuna eta erlijio-askatasuna izateko eskubidea. Eskubide horrek norbere erlijioa edo sines-teak aldatzeko eskubidea dakar, baita bakoitzak, bakarka nahiz taldean,

publikoan nahiz pribatuan, kultuaren bidez, irakaskuntzaren bidez, jardueraz eta erritoak betez, bere erlijioa edo sinesteak azaltzeko ere.

2. Kontzientzia-eragozpenerako eskubidea aitortzen da, eskubide hori baliatzeko estatu kide bakoitzean dauden legeen arabera.

11. artikulua

Adierazpen-askatasuna eta informazio- askatasuna.

1. Pertsona orok du adierazpen- askatasunerako eskubidea. Eskubide horrek iritzi-askatasuna eta informazioa zein ideiak jaso nahiz ezagutarazteko askatasuna dakartza, herri-agintariek esku sartu gabe eta mugarik kontuan hartu gabe.
2. Errespetatu egiten dira bai komunikabideen askatasuna baita beren aniztasuna ere.

12. artikulua

1. Pertsona orok du askatasunez era baketsuan biltzeko eskubidea eta maila guztietako elkarteetara biltzeko askatasuna, batez ere politikan, sindikatuetan eta herritar-taldeetan; pertsona orok du, beraz, bere interesen alde beste batzuekin batera sindikatuak sortzeko eskubidea baita sindikatuetan afiliatzekoa ere.
2. Europar Batasun osoko alderdi politikoek Batasuneko herritarren borondate politikoa adierazten laguntzen dute.

13. artikulua

Arteetako eta zientzietako askatasuna

Askatasunez jardun daiteke artegintzan eta zientzia-ikerketan. Katedra- askatasuna errespetatzen da.

14. artikulua

Hezkuntzarako eskubidea

1. Pertsona orok du hezkuntzarako eskubidea, eta lanbide-heziketara iritsi eta etengabeko prestakuntza jasotzekoa.
2. Eskubide honen baitan sartzen da nahitaezko hezkuntza doan jaso ahal izatea.
3. Errespetatu egiten dira demokraziako printzipioak errespetatuz ikastetxeak sortzeko askatasuna, eta gurasoek beren erlijioa, filosofiako eta pedagogiako

sinesteen arabera beren seme-alaben hezkuntza eta irakaskuntza bermatzeko duten eskubidea, betiere, horiek nola baliatu arautzeko estatu bakoitzak dituen legeekin bat etorritik egiten bada.

15. artikulua

Lanbide-askatasuna eta lan egiteko eskubidea

1. Pertsona orok du lan egiteko eskubidea baita askatasunez aukeratu edo onartutako lanbidean jarduteko eskubidea ere.
2. Batasuneko herritar orok du edozein estatu kidetan lana bilatzeko, lan egiteko, kokatzeko edo zerbitzuak emateko askatasuna.
3. Hirugarren herrialdeetako herritarrek, estatu kideen lurraldean lan egiteko baimena dutenean, eskubidea dute Batasuneko herritarrek dituzten lan- baldintza bertsuez gozatzeko.

16. artikulua

Enpresa-askatasuna

Enpresa-askatasuna aitortzen da, Batasuneko Zuzenbideak eta estatu kide bakoitzeko lege eta jokaerek ezarritako moduan.

17 artikulua

Jabetza-eskubidea

1. Pertsona orok du lege barruan eskuratu dituen ondasunen jabetzaz gozatzeko eskubidea, eta ondasunok erabili, xedatu eta oinordetzan uztekoa. Inori ere ezin zaio bere jabetzarik kendu, onura publikorako denean izan ezik; hala ere, legean jasotako kasuetan eta baldintzetan izango da, eta trukean, arrazoizko epe baten barruan, ondasunak galtzeagatik kalte- ordain zuzena emanda. Ondasunen erabilera legez arautu ahal izango da, interes orokorrerako beharrezkoa den heinean.
2. Babestu egiten da jabetza intelektuala.

18 artikulua

Asilo-eskubidea

Bermatu egiten da asilo-eskubidea, 1951ko uztailaren 28ko Genevako Hitzarmeneko arauak eta Iheslarien estatutuari buruzko 1967ko urtarrilaren 31ko protokoloko arauak errespetatuz eta Europar Batasunaren Tratatuarekin eta Europar Batasunaren

Funtzionamenduari buruzko Tratatuarekin bat etorriz (aurrerantzean «Tratatuak» deituko zaie).

19 artikulua

Babesa ematea, pertsonak bihurtu, kanporatu eta estraditatzeko kasuetan

1. Debekatu egiten da pertsonak taldeka kanporatzea.
2. Inor ere ezin izango da beste estatubatera bihurtu, kanporatu edo estraditatu estatu horretan heriotza- zigorra, tortura nahiz zigor edo tratu anker edo laidog-
arriak jasateko arrisku larria badu.

III. TITULUA

BERDINTASUNA

20. Artikulua

Berdintasuna legearen aurrean

Pertsona guztiak dira berdinak legearen aurrean.

21. Artikulua

Bereizkeriarik eza

1. Debeku da bereizkeria oro, eta bereziki hauek: sexua, arraza, kolorea, herriko zein gizarteko jatorria, ezaugarri genetikoak, hizkuntza, erlijioa zein sinesteak, iritzi politikoak zein beste edozein iritzi, gutxiengo nazional batekoa izatea, ondarea, jaiotza, ezgaitasuna, adina nahiz sexu-joera direla-eta egindako bereizkeriak.
2. Debeku da nazionalitatea dela-eta inongo bereizkeriarik egitea Tratatuaren aplikazio-eremuan, bere xedapen bereziei kalterik egin gabe.

22. Artikulua

Kultura-aniztasuna, erlijio-aniztasuna eta hizkuntza-aniztasuna.

Batasunak kultura-aniztasuna, erlijio- aniztasuna eta hizkuntza-aniztasuna errespetatzen ditu.

23. Artikulua

Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna

Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna eremu guztietan bermatu beharko da, baita enpleguari, lanari eta lansariari dagokienez ere. Berdintasun- printzipioak ez du eragozten, ordezkazarik gutxien duen sexukoan alde denean, abantaila zehatzak dakartzaten neurriak onartzea edo mantentzea.

24. Artikulua

Haurren eskubideak

1. Hurrek babes-eskubidea eta ongizaterako beharrezko dituzten zainketak jasotzeko eskubidea dute. Askatasunez adierazi ahal izango dute beren iritzia. Beren iritzia kontuan hartuko da dagozkien gaietan, beren adinaren eta heldutasunaren arabera.
2. Herri-agintariek edo instituzio pribatuek hurrei dagokienez egindako jardun guztietan haurren interes gorena izan behar dute kontuan lehentasunez.

3. Haur orok eskubidea du aldiro-aldiro harreman pertsonalak eta zuzeneko harremanak izateko bai aitarekin bai amarekin, harremanok haurraren interesen aurkakoak direnean izan ezik.

25. Artikulua

Adineko pertsonen eskubideak

Batasunak aitortu eta errespetatu egiten du adineko pertsonak bizitza duina eta independentea izateko, eta gizarte-bizitzan eta kultura-bizitzan parte hartzeko duten eskubidea.

26. Artikulua

Ezgaitasunen bat duten pertsonen integrazioa.

Batasunak aitortu eta errespetatu egiten du ezgaitasunen bat duten pertsonak autonomia izateko, gizartean eta lanean integratzeko, eta gizartearen bizitzan parte hartzeko duten eskubidea, eta hori bermatzeko hartzen diren neurriez baliatzekoa.

IV. TITULUA

ELKARTASUNA

27. Artikulua

Langileek enpresan informaziorako eta kontsulta egiteko duten eskubidea Langileei zein beren ordezkariari informazioa eta kontsulta bermatu beharko zaizkie, dagokien mailan, behar bezain aldez aurretik, Batasuneko Zuzenbidean eta estatu bakoitzeko lege eta jokaeretan agindutako kasuetan eta baldintzetan.

28. Artikulua

Negoiazio eta ekintza kolektiborako eskubidea

Langileek eta enpresaburuek, hala nola batzuen eta besteen ordezkarietarako, Batasuneko Zuzenbidearekin eta estatu bakoitzeko lege eta jokaerekin bat etorriz, eta dagokien mailan, hitzarmen kolektiboak negoziatu eta egiteko eskubidea dute; eta interesen arteko gatazkak sortzen badira, ekintza kolektiboak egin ahal izango dituzte, greba barne, beren interesak defendatzeko.

29. Artikulua

Enplegu-zerbitzuez baliatzeko eskubidea

Pertsona orok du doako enplegu-zerbitzuez baliatzeko eskubidea.

30. Artikulua

Bidegabeko kaleratzeetik babestuta izateko eskubidea

Langile orok du bidegabeko kaleratzeetik babestuta izateko eskubidea, Batasuneko Zuzenbidearekin eta estatu bakoitzeko lege eta jokaerekin bat etorriz.

31. Artikulua

Lan-baldintza zuzen eta bidezkoak

1. Langile orok du bere osasuna, segurtasuna eta duintasuna errespetatzen duten baldintzetan lan egiteko eskubidea.
2. Langile orok du lanaren gehienezko iraupena mugatuta izateko eskubidea, baita egunero eta astero atsedeen-aldiak hartzeko eta ordaindutako oporrak urtero izateko eskubidea.

32. Artikulua

Haurren lanaren gaineko debekua, eta gazteen babesa lanean

Debeku da haurren lana. Lanean onartzeko adinik txikiena ezingo da izan nahitaezko eskolaratze-aldia amaitzeko adina baino txikiagoa, gazteentzat hobeak diren xedapenei kalterik egin gabe, eta mugatutako salbuespenak salbuespen.

Lanerako hartzen diren gazteek beren adinera egokitutako lan-baldintzak izan behar dituzte, eta esplotazio ekonomikotik babestuta egon behar dute, baita beren segurtasun, osasun, garapen fisiko, psikiko, moral edo sozialerako kaltegarri izan daitekeen, edo bere heziketa arriskuan jar dezakeen edozein lanetatik ere.

33. Artikulua

Familia-bizitza eta lanbide-bizitza

1. Bermatu egiten da familiaren babesaren, ekonomiaren eta gizartearen aldetik.
2. Familia-bizitza eta lanbide-bizitza elkartu ahal izateko, pertsona orok du amatasuna dela-eta kaleratua izateko babestuta egoteko eskubidea; era berean, pertsona orok du, haurra jaio edo adopzioan hartu dela-eta, gurasotasun-baimenaldia izateko eskubidea baita ordaindutako amatasun-baimenaldia izateko eskubidea ere.

34. Artikulua

Gizarte-segurantza eta gizarte-laguntza

1. Batasunak aitortu eta errespetatu egiten du gizarte-segurantzako prestazioak eta gizarte-zerbitzuak jasotzeko eskubidea, Batasuneko Zuzenbideak eta estatu bakoitzeko lege eta jokoarek ezarritako moduan, bai amatasuna, gaixotasuna eta laneko istripuak gertatzen direnerako, mendekotasuna zein zahartzaroa etortzen direnerako, nahiz lana galtzen denerako babesaren bermatuta egon dadin.
2. Batasunean legezko bizilekua izan eta bertan batera eta bestera legez dabilen pertsona orok du gizarte-segurantzako prestazioak eta gizarteko abantailak jasotzeko eskubidea, Batasuneko Zuzenbideak eta estatu bakoitzeko lege eta jokoarek ezarritakoaren arabera.
3. Gizarteko bazterkeriaren eta pobrezia-aren aurka borrokatzeko, Batasunak aitortu eta errespetatu egiten du gizarte-laguntzak eta etxebizitza-laguntzak izateko eskubidea, baliabide nahikorik ez duten guztiei bizimodu duina bermatzeko, Batasuneko Zuzenbideak eta estatu bakoitzeko lege eta jokoarek ezarritako moduan.

35. Artikulua

Osasunaren babesaren

Pertsona orok du osasun-prebentzioa izateko eta osasun-sorospenaren onurak jasotzeko eskubidea, estatu bakoitzeko lege eta jokoarek ezarritako moduan. Batasunaren politika eta ekintza guztiak zehaztu eta betetzean, giza osasunaren babes-maila handia bermatuko da.

36. Artikulua

Ekonomia-interes orokorreko zerbitzuez baliatu ahal izatea

Batasunak aitortu eta errespetatu egiten du ekonomia-interes orokorra duten zerbitzuez baliatu ahal izatea, estatu bakoitzeko lege eta jokaerek ezarritako moduan, Tratuekin bat etorriz, Batasuneko gizartearen eta lurraldearen kohesioa sustatzeko.

37. Artikulua

Ingurumenaren babesa

Batasunaren politiketan, garapen iraunkorraren printzipioari jarraituz, bateratu eta bermatu egin behar dira, bai ingurumenaren babes-maila handia jasotzea, bai horren kalitatea hobetzea.

38. Artikulua

Kontsumitzaileen babesa

Batasunaren politiketan babes-maila handia bermatuko da kontsumitzaileentzat.

V. TITULUA

HERRITARTASUNA

39. Artikulua

Europako Parlamenturako hauteskundeetan hautesle zein hautagai izateko eskubidea

1. Batasuneko herritar orok Europako Parlamenturako hauteskundeetan hautesle zein hautagai izateko eskubidea du bizilekua duen estatu kidean, estatu horretako herritarrek dituzten baldintza berberetan.
2. Europako Parlamentuko diputatuak zuzeneko sufragio unibertsal aske eta isilpekoz hautatuko dira.

40. Artikulua

Udal-hauteskundeetan hautesle zein hautagai izateko eskubidea

Batasuneko herritar orok du bizilekua daukan estatuko udal-hauteskundeetan hautesle zein hautagai izateko eskubidea, estatu horretako herritarrek dituzten baldintza berberetan.

41. Artikulua

Administrazio ona izateko eskubidea

1. Pertsona orok du eskubidea Batasuneko instituzioek, organoek eta organismoek berari dagozkion kontuak alderdikieriarik gabe, ekitatez eta zentzuzko epe baten barruan azter ditzaten.
2. Eskubide honen barruan sartzen dira, zehatza esanda:
 - a) pertsona orok du eskubidea kalte egin diezaiokeen bakarkako edozein neurri bere kontra hartu aurretik esateko duena entzun dakion;
 - b) pertsona orok du eskubidea berari dagokion espedientea eskuratu ahal izateko, betiere, isilpekotasuna eta lanbide eta merkataritzako sekretua gordetzeko interes bidezkoak errespetatuz;
 - c) administrazioak bere erabakien arrazoiak emateko betebeharra du.
3. Pertsona orok du Batasuneko instituzioek zein ordezkariak beren eginkizunak betetzean berari eragindako kalteen ordaina Batasunak berak ordaintzeko eskubidea, estatu kideetako zuzenbideen printzipio orokor erkideekin bat etorriz.
4. Pertsona orok jo ahal izango du Batasuneko instituzioetara Tratatuaren hizkuntzetakoren batean, eta erantzuna ere hizkuntza horretan jaso behar du.

42. Artikulua

Agiriak eskuratzeko eskubidea

Batasuneko herritar orok eta estatu kideetakoren batean bizilekua edo sozietatearen egoitza daukan pertsona fisiko nahiz juridiko orok Batasuneko instituzio, organo eta organismoetako agiriak eskuratzeko eskubidea du, agirien euskarria edozein dela ere.

43. Artikulua

Europako Arartekoa

Batasuneko herritar orok eta estatu kideetakoren batean bizilekua edo sozietatearen egoitza daukan pertsona fisiko nahiz juridiko orok du eskubidea Batasuneko instituzio, organo eta organismoen jardunean izandako administrazio okerreko kasuak Europako Arartekoari aurkezteko, Europar Batasuneko Justizia Auzitegia, bere jurisdikzio-eginkizunak betetzen ari dela, alde batera utzita.

44. Artikulua

Eskariak egiteko eskubidea

Batasuneko herritar orok eta estatu kideetakoren batean bizilekua edo sozietatearen egoitza daukan pertsona fisiko nahiz juridiko orok du eskubidea Europako Parlamentuari eskariak egiteko.

45. Artikulua

Zirkulatzeko eta bizilekua hartzeko askatasuna

1. Batasuneko herritar orok du estatu kideetako lurraldean barrena askatasunez zirkulatzeko eta bertan bizilekua hartzeko eskubidea.
2. Tratatuetan xedatutakoarekin bat etorriz, estatu kideren bateko lurraldean bizilekua legez daukaten hirugarren herrialdeetako herritarrei askatasuna eman ahal izango zaie bertatik zirkulatzeko eta bertan bizilekua hartzeko.

46. Artikulua

Babes diplomatiko eta kontsularra

Batasuneko herritar orok, herritar deneko estatu kideak ordezkartzarrik ez badu hirugarren herrialderen batean, beste edozein estatu kideetako agintari diplomatiko eta kontsularren babesa jaso ahal izango du, estatu horretako herritarrentzako baldintza berberetan.

VI. TITULUA

JUSTIZIA

47. Artikulua

Babes judizial eragingarria eta epaile inpartziala izateko eskubidea

Pertsona orok, baldin eta Batasuneko Zuzenbideak bermatzen dizkion eskubideak eta askatasunak urratuta ikusten baditu, babes judizial eragingarria izateko eskubidea du, artikulu honetan ezarritako baldintzak errespetatuz.

Pertsona orok du, legeak alde zuzenetik ezarrita, eskubidea, epaile independente eta inpartzial batek zentzuzko epe baten barruan ekitatez eta jendaurrean bere auzia entzun dezan. Pertsona orok eska dezake beretzat aholkua, defentsa eta ordezkapena.

Doako laguntza juridikoa emango zaie baliabide nahikorik ez dutenei, justiziara benerant iristeko berme moduan beharrezkoa denean.

48. Artikulua

Errugabetasun-presuntzioa eta defentsaren eskubideak.

1. Akusatu oro errugabetzat joko da harik eta bere erruduntasuna legez deklaratu arte.
2. Akusatu orori bermatzen zaio defentsaren eskubideen errespetua.

49. Artikulua

Delituen eta zigorren arteko heinekotasunaren printzipioa eta legezkotasun-printzipioa.

1. Inor ezin izango da kondenatu egite edo ez-egite bategatik, egiterako orduan barne-zuzenbidean zein nazioarteko zuzenbidean kasu hori arau-haustea ez bada. Era berean, ezin izango da ezarri arau-haustea egitean aplikatzekoa zena baino zigor astunagorik. Aldiz, arau-haustea egin eta gero legeak zigor arinagoa ezartzen badu, azken hori aplikatu behar da.
2. Artikulu hau ez da egite edo ez-egite baten errudun dena epaiketarik eta zigorrik gabe gelditzeko arrazoi izango, baldin eta, hark egindakoa egin zuenean edo egin beharrekoa egin gabe utzi zuenean, estatu guztiek aitortutako printzipio orokorren arabera delitu bazen.
3. Zigorren indarra ezingo da izan arau- hausteari dagokion neurritik gorakoa.

50. Artikulua

Arau-hauste berberetatik zigor- zuzenbidearen arabera bi aldiz epaitua edo kondenatua ez izateko eskubidea Inor ere ezin izango da arau-hauste batengatik zigor-

zuzenbidearen arabera epaitu edo kondenatu, baldin eta lehenago, Batasunaren bar-
ruko lurraldean, arau-hauste horrengatik berarengatik absolbitua edo kondenatua izan
bada legearen arabera emandako zigor-epai irmo baten bidez.

VII. TITULUA

GUTUNAREN INTERPRETAZIOA ETA APLIKAZIOA ARAUTZEKO XEDAPEN OROKORRAK

51. Artikulua

Aplikazio-eremua

1. Gutun honetako xedapenak Batasuneko instituzio, organo eta organismoei zuzentzen zaizkie, subsidiarotasun-printzipioa errespetatuz, baita estatu kideei ere, baina Batasunaren zuzenbidea aplikatzen dutenean bakarrik. Horrenbestez, estatuak eskubideak errespetatu, printzipioak bete eta horien aplikazioa sustatuko dute, betiere, bakoitzak dituen eskumenen arabera eta Tratatuak Batasunari esleitzen dizkioten eskumenen mugen barruan.
2. Gutun honek ez du Batasunaren eskumenetatik at Batasuneko Zuzenbidearen aplikazio-eremua zabaltzen, ez du Batasunarentzat inolako eskumen nahiz xede berririk sortzen, eta ez ditu aldatzen Tratatuetan zehaztutako eskumenak eta xedeak.

52. Artikulua

Eskubideen eta printzipioen irispidea eta interpretazioa

1. Gutun honetan aitortutako eskubideez eta askatasunez baliatzeko edozein murrizketa jartzen dela ere, lege ezarri behar da, eta aipatutako eskubide eta askatasunen funtsezko edukia errespetatu egin behar da. Murrizketak ezarriko badira, heinekotasun-printzipioa errespetatuz betiere, beharrezkoak izan behar dira eta Batasunak aitortutako interes orokorreko helburuekin edo besteen eskubideak eta askatasunak babesteko premiarekin bat etorri behar dute.
2. Honako Gutun honek aitortzen dituen eskubideak, Tratatuaren xedapenak direnean, Tratatuak ezarritako baldintzetan eta finkatutako mugen barruan baliatuko dira.
3. Gutun honetan jasotako eskubideek, Giza Eskubideak eta Oinarrizko Askatasunak Babesteko Europako Hitzarmenean bermatutakoak diren heinean, hitzarmen horrek emandako izaera eta irispidea izango dituzte. Xedapen hori ez da eragozpen Batasunaren Zuzenbideak babes handiagoa eman ahal izateko.
4. Honako Gutun honek estatu kideen konstituzio-tradizio erkidetik sortutako oinarrizko eskubideak aitortzen dituen heinean, eskubide horien interpretazioa aipatutako tradizio horiekin harmonizatuta egingo da.
5. Gutun honetako xedapenak, printzipioak jasotzen dituztenean, Batasuneko instituzio, organo eta organismoetan onartutako lege-egintzen eta betearazpen-egintzen bidez aplikatu ahal izango dira, baita estatu kideek onartutako

egintzen bidez ere, bakoitza bere eskumenak baliatzen ari dela, Batasuneko Zuzenbidea aplikatzen dutenean. Egintza horien legezkotasuna interpretatu eta kontrolatzeko baino ezingo dira alegatu jurisdikzio-organo baten aurrean.

6. Estatu kide bakoitzeko legeak eta jokaerak aintzakotzat hartuko dira erabat, honako Gutun honetan zehaztutakoaren arabera.
7. Gutun hau interpretatzeko jarraibideak erakuste aldera emandako argibideak behar bezala hartuko dituzte aintzakotzat Batasuneko eta estatu kideetako jurisdikzio-organoek.

53. Artikulua

Babes-maila

Gutun honetako xedapen bat ere ezin da interpretatu giza eskubideen eta oinarrizko askatasunen murrizgarri edo kaltegarri izateko, eta halaxe da, eskubide eta askatasun horiek aitortuta baitaude, bakoitzari dagokion aplikazio-eremuan, Batasuneko Zuzenbidean, nazioarteko Zuzenbidean, Batasunaren edo estatu kide guztien parte hartzeaz lotutako nazioarteko hitzarmenetan, eta, batez ere, Giza Eskubideak eta Oinarrizko Askatasunak Babesteko Europako Hitzarmenean, baita estatu kideetako konstituzioetan ere.

54. Artikulua

Eskubideaz abusatzeke debekua

Baldin eta jarduera edo egintza batek gutun honetan aitortzen diren eskubideak edo askatasunak suntsitzen baditu, edo eskubide edo askatasun horiei gutun honetan jasotakoak baino murrizketa handiagoak eragiten badizkio, gutun honetako xedapenatarik bat ere ezin izango da interpretatu jarduera horretara dedikatzeko edo egintza hori burutzeko bestelako eskubiderik dakarrelako ustean.

